



IRIZPEN ZK.: D19-004

ESKOLA-JAZARPEN KASUETAN JARDUTEKO PROTOKOLOAK HASTEAN SORTZEN DEN DOKUMENTAZIOA ESKURATZEARI BURUZKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ikuskari nagusiaren kontsulta bat jaso dugu goiburuan adierazitako gaiari buruz.

Hona idazkiak dioena, besteak beste:

“... egun gero eta familia gehiagok eskatzen dute eskola-jazarpen kasuak daudenean hasten diren jarduteko protokoloen ondorioz sortzen den dokumentazio guztia (Eranskinak). Horri dagokionez, komeni da gogoan izatea eranskin horietan jasotzen dela eskola jazarpen kontuetan nahasita dauden ikasleei buruzko informazioa (ustezko biktimak, salatutako portaera ustez burutu duten subjektuak edo ikasle ikusleak), nahiz eta, ikasleak identifikatzeko, ikasleen izen-abizenen inzialak baino ez diren erabiltzen.

Dokumentazioa eskatzeko arrazoiak era askotakoak izaten dira, eta askotan, gure ustez, asmoa ez da izaten bakeak egitea, gertatutako argitzea edo komunikazioa. Kontrakoa baizik: gero eta sarriago dokumentuok abokatuek erabiltzen dituzte epaitegietan edo bestelako auzietan.

Eskola-jazarpenera oso gai sentsiblea da, bertan bat egiten dutelako zergatiak, balorazioak, perspektiba eta ikuspuntu asko, eta nahikotxotan, ikasleen eta familien sufrimenduak.

Horregatik guztiagatik ez dugu garbi nolako erantzuna eman behar diegun familien eskabideei (zer eman ahal diegun eta zer ez), eta, horretarako, honako araudia aztertzen aritu gara:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: zer da eta zer ez da administrazio espedientea.*
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa: Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea / Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak / Datu pertsonalak babestea / Ez onartzeko arrazoiak.*
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa: bereziki babestutako datuak. (Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak berriki indargabetu egin du).*
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Umeak eta Nerabeak Babestekoa: oinarrizko printzipio gidaria (horien eskubideak babestea).*



1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoarena, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituen: Adingabearen interes gorena (Identitatea babestea)”.

Irizpen eskabidearekin batera aurkeztu dugu laneko dokumentu bat, Hezkuntza Sailak egindakoa eta honako izenburua duena: *“Eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa. Familien eskabideak”*. Horrez gain, beste hauek ere erantsi ditugu: Hezkuntza Sailaren Bilboko Ordezkaritzako lege-aholkularitzak gai honi buruz bidalitako txostena, EAEko ikastetxeetan eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko gida eta abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Irizpen honek aztertu nahi duen kontua da ea eskola-jazarpen kasuetan hasten diren jarduteko protokoloen ondorioz jasotzen den informazioa atzitzeko eskabideak ondo ezkontzen diren datuak babesteko oinarrizko eskubidearekin.

Horretarako, lehenengo eta behin protokoloek izaera prozesala dutela aipatuko dugu. Kontuan izanda gu ez garela ukitutako esparruko adituak, esan dezakegu aurkeztu diguten dokumentazioa aztertu ondoren, atera daitekeen ondorio bat dela eskola-jazarpenaren protokoloa gertakariak argitzeko xedea duen jarduera multzo bat dela. Madrileko Erkidegoko Hezkuntza Kontseilaritzak honela definitu du: *“prozesu sistematiko bat da, bildu, aztertu eta baloratzeko, ustez jazarpena jaso duen ikasleari eta bere eskola testuinguruari buruzko informazio garrantzitsua (ikastetxearen funtzionamendua, eskolako espazioak, interakzio ezaugarriak, bertako gatazka mailak, zein egoeratan sortzen diren eta abar); eta horren arabera, denbora tarte luzeagoa ala laburragoa beharko da”*.

Era berean, Hezkuntza Kontseilaritzak uste du, ikuspegi juridikotik begiratuta, eskola-jazarpeneko protokoloa *“ikastetxeko zuzendaritzak egiten duen espediente informatibo erresebatua dela, tutoreekin, orientatzaileekin eta gainontzeko irakasleekin lankidetzan; eta espediente osatu bitartean ikasketak buruak, orientatzaileek edo tutoreek elkarriketak egiten dizkiete ikasle askori, gurasoen baimenik gabe, baimena ez delako beharrezkoa izaten zehapen prozeduretan”*.

Ondorio bera ateratzen dugu Eusko Jaurlaritzako Ikuskariak emandako informazioa aztertu eta gero, hau da, eskola-jazarpeneko protokoloa neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurak hasi aurretik egiten den administrazio jarduera bat dela, eta halako prozedurek antzekotasunak dituztela zehapen prozedurekin. Euskal Autonomia Erkidegoko



unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak arautzen ditu prozedura horiek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 55.1 artikulua arautzen ditu alde zuzeneko edo aurretzako jarduketak. Hona xedatzen duena;

“55. artikulua. Informazioa eta aurretzako jarduketak.

1. Prozedura hasi aurretik, eskumena duen organoak informaziorako edo aurretzako jarduketarako aldi bat ireki dezake, kasuaren inguruabarrak zein diren eta prozedura hastea komeni den jakiteko.

2. Zehapen-prozeduren kasuan, aurretzako jarduketan bitartez, ahalik eta zehaztasunik handienarekin ikusi behar da zein egitate izan daitezkeen prozedura hasteko arrazoi, nor edo nortzuk izan daitezkeen erantzule, eta zer inguruabar adierazgarri dituzten batzuek eta besteek.

Aurretzako jarduketak egiteaz, gaia aztertzeko, ikertzeko eta ikuskatzeko eginkizunak esleituak dituzten organoak arduratuko dira, eta, halakorik ezean, prozedura hasteko edo ebazteko eskumena duen organoak erabakitzen duen pertsona edo administrazio-organoa”.

Lehen halako jarduerak zehapen prozeduretan erabiltzen ziren, baina 39/2015 Legeak prozedura guztietarako arautzen ditu orokorrean, nahiz eta berariazko aurreikuspen bat jaso duen 2. zenbakian zigor prozeduretarako. Halako prozedurei buruz komeni da gogora ekartzea Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 1. sekzioaren 2007-10-17ko Epaia (180/06 Errekurtsoa). Epaia dio izapideak komenigarriak direla zehapen prozedurei dagokienez, eta dio “zehapen-ahala egikaritzea garrantzi eta eragin handiko kontua dela, ezen zehapen espediente baten menpe dagoenaren estatus juridikoa — egoera horren ondorioz, hain zuzen ere— modu oso negatiboan kaltetu baitaiteke, eta horregatik baino ez bada ere, nahitaezkoa dela zehapen prozedura hasteko erabakia ondo oinarrituta egotea eta prozedura hasteko arrazoiak sendoak izatea.

Horrek esan nahi du administrazioak jakin ahal izateko zein izan diren ustezko gertakari arau-ahaleak, inguruabarrak eta parte hartu duten pertsonak, baimena ematen zaiola ikerketa jarduketak edo aurretzako azterketa egiteko, baldin eta beharrezkoak eta egokiak badira egiaztatzeko ea nahikoa oinarri arrazional dagoen esateko benetan gertatu dela ekintza arau-ahalea eta pertsona jakin bati leporatzeko.

Doktrinaren arabera, zehapen-ahala behar bezala egikaritzen dela ziurtatzeko berme dira aurretzako izapideak, ez daitezkeen gertatu, ahal den neurrian, lege oinarriko edo oinarri faktikorik gabeko alferrikako akusazioak edo zehapen-espedienteak hastea azkarregi. Beraz, aurretzako izapideek, alderdi materialetik begiraturik, zehapen-ahala behar bezala egikaritzen dela bermatzen duen erakundea eratzeko dute, administrazioaren onerako, haiei esker administrazioari ez zaiolako irekitzen oinarriko gabeko zehapen -espedienterik.

Era berean, 2002ko irailaren 13ko KAEk (Aretu Militarra) adierazi zuen ikerketako izapideak direla administrazioak duen ohiko modua eta modu ortodoxo bakarra, legearen ikuspuntutik, argitzeko, zehapenei dagokienez zein diren garrantzia duten gertakariak; eta zigorra merezi dezaketen ekintzei buruzko datuak eta xehetasunak jakin beharra dagoenean kasuetan, azkarregi ez ibiltzeko bermea eratu.



Montoya Martín irakasleak zera dio prozedurarekin duten harremanari buruz: *“Auzitegi Gorenaren doktrinak dio aurretiazko izapideak ez direla zehapen prozeduraren parte bat; eta, beraz, ezin zaizkiela zehapen prozedurak dituen berezko bermeak aurretiazko izapideei ere aitortu¹”*.

Protokoloa, beraz, aurretiazko jarduketan parekoa da, hau da, prozeduratik aparteko gauza bat da, eta aztertzen ari garen kasuan, izaera erreserbatua dute ustezko abusu sexista batzuen ikerketarekin lotuta daude gainera. Hala ondorioztatzen da protokoloa osatzen duten dokumentuak aztertu eta gero. Kontsulta-egileak aurkeztu duen dokumentazioa ikusita, ondorioztatzen da protokoloa honako lau dokumentuk osatzen dutela:

0 eranskina: gertakariak salatu dituen familiarekin egindako hasierako bilerako akta, ikastetxeko zuzendaritzak eta familiak sinatuta. Hor jasotzen dira biktimaren segurtasuna bermatzeko behin-behineko neurriak. Aktaren kopia bat ematen zaio familiari.

I eranskina: ikastetxearen barne bilerako akta. Tutoreak, orientatzaileak edo kontsultoreak hartzen dute parte, eta beharrezkoa izanez gero, gertakarietan nahastuta dauden ikasleen irakasleek ere bai. Bilera honetan aztertu eta baloratzen da egin beharreko esku hartzea, zehazteko ea jazarpenik dagoen ala ez. Eta eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko gidak dioenez, *“protokoloa hasi ala ez ere erabakiko da bertan”*. Hortik ateratzen den ondorioa da aurretiazko jarduketak protokoloa baino lehenagokoak direla. Bilera horren berri eman behar zaio Hezkuntza Ikuskaritzari bilera egiten den egun berean. Bileran erabakitzen bada protokoloa hastea, zuzendariak azalduko du nahitaez bete beharko dela A TXOSTENA eta Hezkuntza Ikuskaritzara bidali.

A TXOSTENA: jazarpen egoera bat dagoelakoan, informazioa, datuak eta ebidentziak jasotzen dira. Horiek aztertu eta gero, zehaztuko da ea jazarpenik dagoen ala ez. Zuzendariak edo kasuaren jarraipena egiten duen arduradunak, behar den informazioa bildu beharko du hainbat iturritatik, eta jasotako datuak idatziz jaso beharko ditu. Informazio bilketa kontu handiz egingo da, adingabeentzat kaltegarria ez izateko moduan, eta beti ziurtatuko da kasuari buruzko informazioa ematen duten ikasleentzako babesia eta anonimata. Informazioa bildu eta gero, zuzendariak beste bilera bat (bigarrena) deituko du irakasleekin, eta hor erabakiko dute ea jazarpenik dagoen ala ez. Bilera honetako ondorioak A TXOSTENEAN jasoko dira. A TXOSTENA zuzendariak egingo du eta Hezkuntza Ikuskaritzara bidali.

B TXOSTENA: A txostenak esaten badu eskola jazarpena dagoela, ikastetxeak B txostena bete beharko du. Hezkuntza Ikuskaritzak hala eskatu duelako ere egin daiteke B Txostena. B txostenean jazarpen egoerarako ekintza plana, jarraipena eta ebaluazioa jasoko dira.

Aztertzen ari garen kasuan, familiek egiten dituzten eskabideak A txostenei buruzkoak dira, eta aurkeztu diguten dokumentu eremuan ikusten denez, ikastetxearen datu identifikatiboak izan ohi ditu, hasieran bildutako informazioa, ustezko biktimen inzialak, ustezko jazarleak, ustezko jazarpena gertatu den tokia, informazio osagarria (mediku txostenik, polizia-salaketarik, salaketa judizialik, edo fiskaltzan ala Arartekoan egindako

¹ MONTROYA MARTÍN E. “Consideraciones sobre las actuaciones previas y su incidencia en el procedimiento administrativo sancionador y en las garantías del administrado” (Documentación Administrativa 280-281. 2008)



salaketarik dagoen ala ez jasoko du), datuak biltzeko prozedurak, ondorio garrantzitsuak, eta, azkenik, ea jazarpenik egon den ala ez dioen ondorioa, hezkuntza tratamendua eta komunikazioa familiekin (datak, prozedurak, edukia, akordioak eta abar).

Garrantzi handia du, ondorio horietarako, protokoloaren 3. orrialdean kontsulta-egileak adierazitakoa, honakoa baieztatzen duelako: *“txostenak egitea ez da ikastetxeetako eguneroko martxako ohiko jarduera bat. Horregatik, nahiz eta ikastetxeetako zuzendaritzei gomendatu eta azpimarratu protokoloaren eranskinak betetzean balio-judiziorik ez egiteko, eta ez jasotzeko bertan egiaztatu gabeko iritzi eta uste subjektiborik, maiz gertatzen da informazioa idazten dutenean, ez idaztea bakarrik gertatu denaren gaineko deskripzio hutsa: batzuetan balorazio eta kalifikazioak jasotzen dituzte, eta ikastetxeetan landu beharreko alderdiak dira; eta orientazioa ere eman behar zaie, aurrerantzean hobetzeko eranskinen idazkera.*

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da eranskinak zuhurtziaz tratatzea, eta erabateko konfidentzialtasunarekin biltzea eta zaintzea eranskinetan jasotzen den informazioa”.

Ondorio horietarako, gogora ekarri nahi dugu ikastetxeetako gidak dioena 4. orrialdean: *“funtsezkoa da azpimarratzea bete egin behar dela hezkuntza jarduera gidatzen duen konfidentzialtasun printzipioa, batez ere halako kasuetan. Burutzen diren jarduera guztien oinarrian egongo da ikasleak babestea”.*

Beraz, segidan egin behar duguna da zehaztu ea hezkuntza jarduera gidatzen duen konfidentzialtasun printzipioa uztartu daitekeen informazio-eginbideak eskuratzearekin. Horretarako, lehenengo eta behin aztertuko dugu ea salaketa eskuratzea zilegi den.

Dirudenez, salaketa eskuratzea dela eta, badago doktrina esaten duena salatuak ez duela salaketaren kopia eskuratzeko eskubiderik², izan ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64.1 artikulua bakar-bakarrik onartzen duelako salatzaileari prozedura hasteko erabakia jakinaraztea. Egia esan, salatuaren defentsa eskubideari begira, garrantzitsuena ez da salaketan aipatzen diren gertakariak, prozedura hasteko erabakian jasota daudenak baizik. Doktrina horren arabera, nekez urratuko du salatuaren defentsa eskubidea salaketa eskuratzeko eskabidea ukatu izanak. Edozelan ere, salaketaren edukiaren berri eman ahal zaio, baina salatzailearen datu pertsonalak ezkutatuta. Baina, ez bada erabakitzen zehapen-espediterik hastea, orduan salakera ez da egongo dena delako interesdunak nahi duen inongo prozeduran. Beraz, ez dago zertan salaketa eskuratu.

Razquin Lizarraga irakasleak ere horixe bera dio, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 2012/0342 Irizpena aipatzen du. *“salatuak, bere burua defendatzeko eskubidea baliatu nahi badu, eskubidea izango du zehapen-prozedurako dokumentazioa aztertzeko eta horren kopiak egiteko, baina, Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 35.a) eta 135 artikuluetan xedatutakoaren arabera. Baina, horretarako, salaketa zehapen-prozeduraren barruan egon beharko da nahitaez (eta kasu batzuetan salaketa ez da zehapen prozeduran sartzen), zehapen-prozedura ofizioz hasi ohi delako, eta salaketa alde aurreko komunikazioa besterik ez delako. Beraz, salaketa zehapen prozeduraren barruan badago, izaera orokorrarekin esan daiteke salatuak baduela salaketaren edukia jakiteko eskubidea, baina ez duela salatzailearen datuak jakiteko eskubiderik, batez ere, salatzaileak salaketan berariaz eskatzen badu bere datu pertsonalen konfidentzialtasuna.*

² Miguel Angel Blanes “La transparencia en los procedimientos sancionadores y disciplinarios”



Salatzaileari bakar-bakarrik jakinarazi ahal izango zaizkio salatzailearen identifikazio datuak salatzaile-interesdunak nahitaez jakin behar duenean salatzaileen identitatea bere defentsa eskubidea baliatzeko.

Gure ustez gogoeta horiek denek berdin-berdin balio dute prozedura hasi aurreko faserako ere, hau da, informazio-eginbideen faserako, eta informazio-eginbideak eskuratzeko aukera egongo da horiek jakitea beharrezko bada defentsa eskubiderako. Komeni da argi uztea testuinguru honetan aurretiazko jarduerak (garai bateko "isilpeko jarduerak") ez direla zehapen prozeduraren barruan sartzen, eta, beraz, ez direla jakinarazten eta ezin direla errekurritu. Ondorioz, ez dira kontuan hartzen prozeduraren iraungitze-eperako, eta ez dute arau-hausteen preskripzio epea eteten. Bestalde, aurretiazko jardueretan norberaren buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea bermatzeko neurriak ere hartu behar dira; ez, ordea, zehapen-prozedurakoak diren bermeak.

Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ere aipatzen ditu ikerketa edo aurretiazko jarduerak. Zehatz esanda, 14.e) artikuluan aipatzen ditu, eta xedatzen du informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango dela, informazio hori eskuratzeko kalteren bat eragiten badie zigor, administrazio edo diziplina arloko egintza ez-zilegien prebentzioari, ikerketari eta zigorrari.

Legegileak ikerketa jarduerak eskuratu ahal izateko mugak jarri ditu, baina, ez dira automatikoki ezarri beharrezko mugak; hau da, ponderazio testa ezarri beharko da eta aztertu ea zein den gehien babestu behar dena: gardentasuna ala mugak babesten duen ondasun juridikoa. Beraz, informazioa eskuratzeari buruzko eta eskuratzeari aldeko araudia bada ere, legegileak aukeratu du —aldez aurretik ponderazio azterketa egin eta gero— babestea kasu batzuetan informazioaren zabalkundea, kalte egin ahal badio zigor, administrazio edo diziplina arloko egintza ez-zilegien prebentzioari, ikerketari eta zigorrari.

II

Eskola jazarpenaren kasuetarako aurreikusitako protokoloak izaera prozesala duen ala ez aztertu eta gero, ikusiko dugu, ukitutako pertsonak adingabeak direnez, ea horrek eraginik duen protokoloa (aurretiazko jarduketak) eskuratzeko eskubidea baliatzeko eskabidean.

Legegileak adingabekoak egon daitezkeela hartu du kontuan informazio publikorako irispideari buruzko araudian. Horren adibide da Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea; izan ere, datu pertsonalen babesak dituen mugak arautzen baititu 15. artikuluan. Batetik, ponderazioko arau negatibo bat ezartzen du honako datuak badira: bereziki babestutako datuak edo arau-hauste penal eta administratiboak buruzkoak. Bigarrenik, ponderazioko arau positibo bat datuak organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jardura publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak badira; eta, azkenik, lau ponderazio irizpide gainontzeko kasuetarako. Bada, legegileak emandako lau ponderazio irizpideetatik hiru informazioa ematearen edo atzitzearen aldekoak dira, eta bat ez:

"d) Eragindakoen eskubideak ahalik eta gehien bermatzea, dokumentuko datuek haien intimitatean edo segurtasunean eragina izan badezakete, edo adingabekoei buruzkoak badira".

Beraz, gardentasunari buruzko araudiak babestu egiten du adingabeei eragiten dien informazioen atzipena. Datu babesaren arloko kontrol agintaritzek ere ikusi dute



adingabeak babestu beharra dagoela, eta, esate baterako, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 2012/0342 Irizpenak (salatzaileen identitatearen gaineko informazioa emateari buruzko irizpen bat da) argi eta garbi dio salatzaileen daturik ezin dela eman adingabeak direlako, eta aztertutako kasuan, gainera, herri txiki batean bizi direlako eta haien identifikatzea erraza delako.

Gure ustez, ez da ahaztu behar kontsulta honetan aztertzen ari garen kasuan ukituak adingabeak direla, eta berme bereziko araubide bat dagoela haientzat, bai nazioartean bai eta Estatuan ere. Hona Estatuko legeak: Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa eta Umeak eta Nerabeak Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea.

Nazioartean aipatu behar da Haurren eskubideei buruzko Itunak xedatzen duena 3. artikuluko 1. zenbakian: *“Hurrei dagokienez, gizarte-ongizateko erakunde publiko nahiz pribatuek, auzitegiek, administrazio-agintariek edo legegintza-organoek hartzen dituzten neurri guztiek haurren interes gorena zaintzea izango dute lehendabiziko ardura”*.

Itunak dioena jaso egin zen barne zuzenbidean Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan. Hona 2. artikuluko xedatzen duena:

“1. Adingabeek beren interes gorena baloratu eta hura funtsezkotzat har dadila eskatu ahal izango dute berei dagozkien akzio eta erabaki guztietan, eremu publikoan nahiz pribatuan. Lege hau eta berari eragiten dioten gainerako arauak aplikatzen direnean, eta erakunde publiko nahiz pribatuek, epaitegiek edo organo legegileek hartzen dituzten adingabeekin lotutako neurriak aplikatzen direnean, haien interes gorenari emango zaio lehentasuna, egon daitezkeen bestelako interes legitimoen gainetik”.

Nazio Batuen Erakundeko Haurren Eskubideei buruzko Batzordeak garatu egin zuen adingabeen interes gorenari buruzko kontzeptu juridikoa *honako dokumentuaren bidez: “Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordearen 2013ko maiatzaren 29ko 14. zenbakiko ohar orokorra”*.

Dokumentu horren arabera, adingabeen interes gorenari buruzko kontzeptu juridikoaren xedea da bermatzea Haurren eskubideei buruzko Itunak aitortutako eskubide guztien gozamen osoa eta eraginkorra, bai eta haurren garapen holistikoa ere. Batzordeak uste du adingabeen interes gorenari buruzko kontzeptua hirukoitza dela:

1.- Batetik, eskubide substantibo bat da, dioena adingabeen interes gorenak lehentasuna izango duela eztabaidatzen den gaiari buruzko erabakia hartzeko orduan tartean dauden interesak aztertzen direnean.

2.- Bestetik, funtsezko printzipio juridiko interpretagarri bat da, dioena xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago badauzka, beti aukeratu beharko dela haurren interes gorena ondoen asebetetzen duena.

3.- Hirugarrenik, prozedura arau bat ere bada: haur edo haur talde jakin baten edo oro har haurren gaineko erabakiren bat hartu behar denean, erabakia hartzeko prozeduran jaso beharko da erabakiak haurren edo hurrengan izango izango dituen uzteko ondorio positibo edo negatiboen gaineko balioespen bat. Haurren interes gorena balioesteko eta finkatzeko, berme prozesal bereziak behar dira, eta, gainera, hartzen diren erabakien oinarrian dauden arrazoiak argi adierazi behar dute berariaz hartu dela kontuan eskubidea.



Batzordearen dokumentuak lotu egiten ditu haurren interes gorena eta haurren zaintza, babesa eta segurtasuna, esaten duenean haurren interes gorenak haurren segurtasuna ere hartu behar duela kontuan; hau da, kontuan hartu behar duela haurrek eskubidea duela babestuta egoteko kalte edo abusu fisiko nahiz mental ororen aurrean, sexu jazarpenaren aurrean, beste haurren presioaren aurrean, larderiaren eta tratu iraingarrien aurrean, eta abar.

Erabakiak hartzeko prozesuaren baitan haurren interes gorenaren ikuspegia txertatzen bada, horrek esan nahi du une horretako haurren segurtasuna eta integritatea ere aztertu direla. Baina, zuhurtzia-printzipioak agintzen du etorkizunean egon daitezkeen arriskuak eta ondorioak ere aztertzea, eta erabakiak haurren segurtasunean izan ditzakeen ondorioak ere bai.

Era berean, oso interesgarria da Batzordeak egindako gogoeta esanez haurren interes gorenaren kontzeptua konplexua dela eta bere edukia kasuz kasuz zehaztu behar dela. Batzordeak dioenez, legegileek, epaileek edo administrazio, gizarte edo hezkuntza agintaritzek kontzeptua argitu eta praktikan jar dezakete, ahalik eta modurik zehatzenean ezarrita 3. artikuluko 1. paragrafoan jasotakoa, eta kontuan hartuta Haurren eskubideei buruzko Ituneko gainontzeko xedapenak.

Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea zati batean aldatzen duen Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa 22 quater artikuluan ere jasota dago haurren interes gorena. 22 quater artikulua datu pertsonalak babesteari buruzkoa da, eta argi eta garbi dio administrazio publikoek bildutako datuak bakar-bakarrik erabili ahal izango direla lege horretan ezarritako babes neurriak hartzeko, "*adingabearen interes gorena kontuan hartuta*". Ondorioz, datu babesari buruzko esparruko araudiak egiten duen aurreikuspenak berariaz dio haurren informazio pertsonala tratatzen denean, haurren interes gorena ere aintzat hartu beharko dela.

Azkenik, Umeak eta Nerabeak Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea aipatu behar da. Lege horren 6. artikulua erreserba-betebeharra azpimarratzen du, xedatzen duelako organismo, entitate eta erakunde publiko nahiz pribatuek erreserbaz jokatu beharko dutela umeak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparruan, eta hartu behar diren neurriak hartuko dituztela, konfidentziasunarekin tratatzeko intimitaterako eskubidea, esku artean duten informazioa, eta informazioa jasotzen duten fitxategiak edo artxiboak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Bestalde, 3/2005 Legearen 48.a) artikulua, administrazio-jardunaren printzipio eta irizpide gidarien artean jaso du errespetatu egingo dela jarduketa guztietan haur eta nerabeen interes gorenak eta haien eskubideen babesak, eta eskubide horien garapenaren bermeak beste edozein interes bidezkoen gainetik duten lehentasuna.

III

Eskuratu nahi den dokumentazioaren izaera prozesala aztertu eta gero, eta kontuan izanda kasu honetan azpimarratzekoa dela informazioa adingabeei buruzkoa dela, irizpena amaituko dugu esanez eskola jazarpenari buruzko protokoloari buruz ari garenean, informazioaren konfidentzialsuna bi unetan hartu beharko dela kontuan:



Lehenengo unea da protokoloa osatzen duten dokumentuak egiten direnean. Hau da, funtsezko datu pertsonalak bakarrik, eta ahalik eta datu gutxien jasoko dira. Baina, kontuan izan inzialak erabiltzen badira gerta daitekeela ez bermatzea informazioaren konfidentzialtasuna, pertsonak identifikatzea erraza izan daitekeelako.

Bigarren unea da informazioa eskuratzeko eskabideak ebazten direnean. Halakoetan, informazio laga behar duenak honakoak hartu beharko ditu kontuan:

- Ea eskatzaileak, eskatutako informazioa jasotzeko interes legitimoa eta zuzena duela egiaztatu duen.
- Ea interes hori gailentzen zaien babestu beharreko bestelako ondasun juridikoei (adingabeen interesen gorenara edo datu komunikazioak ukitu dezakeen beste eskubideren bat).
- Ea posible den eskatzaileak nahi duena, baina informazioa disoziatuta emanda. Disoziatuta eman ahal bada, hala eman beharko da.

Gogoeta horiek denak baliokoak izan daitezke ikastetxeetako arduradunentzat, atzipen edo sarbide eskabideak ebazteko, kasu bakoitza banan-banan aztertuta.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 8a